

1. PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: hezkuntza orientabideak

Praktika mota: kontzeptuala

Hurrengo orrian taula bat dago eta bertan eredu/orientabide/fokapen bakoitzetik nola ulertzen diren prestatzaileen garapen profesionalerako hainbat irizpide jasotzen dira.

Lauki bakoitzari dagokion erantzuna modu laburrean eman.

Garapen profesionalerako ereduak	Orientabide teknikoa, teknologikoa, akademikoa	Orientabide praktikoa, interpretatzailea, kulturala	Orientabide kritikoa, gizartearen eraikitzailea
Auto formazioa			
Hausnarketa eta gainbegiraketa			
Curriculumaren garapena			
Prestakuntza-ikastaroak			
Eskolan oinarritutako prestakuntza			
Ikerkuntza			

Erantzuna

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

Garapen profesionalerako ereduak	Orientabide teknikoa, teknologikoa, akademikoa	Orientabide praktikoa, interpretatzailea, kulturala	Orientabide kritikoa, gizartearen eraikitzailea
Auto formazioa	Auto instrukzioko moduluak Ikastaro laburrak	Hezkuntza gaien inguruan irakasleek ikaskuntza-taldeak sortzen dituzte Irakasleak bere ikerketa ikasgelan egiten du	Irakasleek ikaskuntza-taldeak sortzen dituzte ondorengo gaien inguruan eztabaidatzeko: estereotipo kulturalak, curriculum-aniztasuna, aniztasuna testu liburuetan,...
Hausnarketa eta gainbegiraketa	Gainbegiraketa klinikoa: gainbegiraleen eskutan eta irakasleen trebetasunetan oinarrituta Jokaeren behaketa, eraginkortasunerako adierazleak bilatzen dira	Kolaboraziorako gainbegiraketa klinikoa: negoziazioan eta hausnarketan oinarrituta Lankideen arteko laguntza profesionala ematen da Ikusi eta ikus ezin diren alderdien behaketa egiten da (sinesmenak, teoriak, ...)	Gainbegiraketa klinikoa: irakaskuntzaren eta eskolaren alderdi etikoak, pertsonalak eta politikoak aztertzen dira Behaketa irakasleen teoriak alderatzeko eta berreraikitzeke erabiltzen da

<p>Curriculumaren garapena</p>	<p>Irakasleak kanpoan diseinatutako curriculum bat aplikatzen du</p>	<p>Lankidetzaren prozesu batean oinarrituz, irakasleek eskolarako curriculum-proiektu bat diseinatzen eta aplikatzen dute</p>	<p>Irakasleek, ikasleekin, gurasoekin eta beste agente batzuekin batera berrikuntza-proiektu bat diseinatzen eta garatzen dute</p> <p>Berrikuntza-proiektuaren helburua: marjinazioa, ezberdintasun egoerak, genero indarkeria ... saihestea da</p>
<p>Eskolan oinarritutako prestakuntza</p>	<p>Kanpoko adituek eskolak dituen beharrak diagnostikatzen dituzte, eta egoera hobetzeko prozesua planifikatzen dute</p>	<p>Irakasleek elkarrekin lan egiten dute kanpoko aholkulariekin batera, eskolan dauden beharrak eta arazoak ulertzeko</p>	<p>Irakasleek, ikasleekin eta gurasoekin batera, eskola-kultura aztertzen dute, bertako gatazkak, botere erlazioak, mikro politikak ... azalertzeko, eta komunitatearekin konpromisoak zabaltzeko</p>
<p>Prestakuntza-ikastaroak</p>	<p>Ikerketetatik ateratako trebetasunen lanketan oinarritzen da: irakaskuntza zuzena</p>	<p>Gai didaktikoetan oinarritutako ikastaroak</p> <p>Helburua praktikak aztertzea eta horien inguruan hausnartzea da</p> <p>Erabiltzen diren instrumentuak: biografiak, egunerokoak, kasuak, ...</p>	<p>Aniztasunean, kultur aniztasunean, hezkidetzan ... oinarritutako ikastaroak</p> <p>Helburua norberaren egoera eta portaerak/jarrerak aztertzea eta hausnartzea da</p> <p>Erabiltzen diren instrumentuak: biografiak, egunerokoak, kasuak, ...</p>

		Erabiltzen diren edukiak prozedurazko ezagutzak dira	Prestakuntzaren hasieran ikastaroak antolatzen dira, ondoren sakontzeko mintegiak eskaintzen dira
Ikerkuntza	Irakasleak ikerketan parte hartzen du Irakaslea, ikerketan ikergai subjektua da	Irakasleek eta ikasleek ikerketa bat diseinatzen eta garatzen dute arazo zehatzak konpontzeko Ikerlarien aholkularitza onartzen da	Irakasleek eta beste kolektiboek (ikasleek, gurasoek, bizilagunek, ...) marjinazio, injustizia „... egoeren zergatiak aztertzen dituzte eta hobetzeko proposamenen inguruan ikertzen dute

Hemen aipatuta: MARCELO, C. (1995). *Formación del profesorado para el cambio educativo*. EUB.